

DIRU-LAGUNTZEN PROGRAMEI BURUZKO EBALUAKETA 2014

EMAKUNDE

1. Emakumeen eta gizonen berdintasunaren alorreko hiru ikerlanetarako beken 2014ko deialdia.
2. Enpresa eta erakunde pribatuentzako diru-laguntzak, aholkularitza-enpresa homologatu bat kontrata dezaten, emakume eta gizonen berdintasunari buruzko diagnostikoa eta berdintasun-plana egiteko
3. Diru-laguntzak, 2014. urtean emakumeen aurkako indarkeriazko portaerei buruz sensibilizatzeko eta/edo halakoak prebenitzeko jarduerak bultzatzen eta sustatzen dituzten erakunde, elkarte eta fundazioentzat.
4. Emakumeen aurkako indarkerian esku hartzeari buruzko unibertsitate-master ofiziala egiteko laguntza
5. Emakumeen elkartegintza eta emakumeek EAEko eremu guztietan parte har dezaten sustatzea

1.- Izenburua

Emakumeen eta gizonen berdintasunaren alorreko hiru ikerlanetarako beken 2014ko deialdia.

2.- Araua

2013ko abenduaren 3ko Ebazpena, Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeko zuzendariarena, 2014. urtean emakumeen eta gizonen berdintasunari buruzko ikerlanak egiteko hiru bekatarako deialdia onartzen duena.

3.- Diru-laguntza Programaren azalpen laburra eta helburuak

Berdintasunaren aldeko politikak garatuko baditugu, aztertu beharra daukagu zer genero-harreman eta -rol dauden egun emakumeen eta gizonen artean eremu guztietan dauden ezberdintasunen oinarrian. Bestalde, berdintasunaren esparruan ekintza berritzaileak saiatu behar ditugu, gero, ekintza horiek politika orokorretan txertatu ahal izateko. Politikak planifikatu, abiarazi eta ebaluatzeko erantzukizun politikoa eta teknikoa dutenek eskura eduki behar dituzte beharrezkoak diren tresnak, hain justu ere, generoari buruzko alderdiei ekiteko.

Aurreko deialdietan, zegoen diru-laguntzen ildoan, emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna lortzen laguntzeko ekintza pilotuak edo ikerlanak egitea eta argitaratzea zen xedea. Egindako kudeaketa eta emaitzak balioztatu ondoren, 2010etik aurrera BEKEN modalitatearen bidez arautu da ikerlanentzako laguntza, bide horri iritzi baitzaio egokiena ikerketa-lana aipatutako helburuak lortzeko bidean abiatzeko.

2014an ongi definitutako hiru motatako bekak mantentzen dira, hiru motatako ikerlanak egiteko pentsatuak, bakoitzarentzat ezarritako helburuen arabera: 1. mota: gizarte-esparru guztietan balio-aldaketa lagunduko duten eta berdintasunerako eraldaketa soziala bultzatuko duten ekimenak eta proposamenak bilatzea, eta faktoreak aztertzea; 2. mota: egoerak eta desberdintasunak aztertzea askotariko bereizkeria jasateko arriskuan dauden emakumeen taldean, eta bereziki, baliabide sozial eta ekonomikoez baliatzerakoan, eta segurtasunean; eta 3. mota: sistema patriarkalari eustea laguntzen duten gizarte-fenomenoen presentzia, eragina eta azterketa, eduki horiek direlako gure ustez ikerketa berriak sustatzeko eta deialdiak xede dituen helburuak lortzeko egokienak.

Horrela, bada, deialdi honen bidez, azterlanen eremu horiek dinamizatu nahi dira eta emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna lortzen lagunduko duten ikerlanak egin daitezen ahalbidetu nahi da. Bekak alor horretan espezialista diren banakoei edo taldeei emango zaizkie, ikerlanen kalitatea bermatzeko eta aipatutako helburuak lortzeko.

4.- Lortutako emaitzak, aurrekontu programarekin lotutako magnitudeak eta eragina gizartean

2014ko ekitaldian hogeita zazpi eskaera hartu ziren 1. motako beka lortzeko. Horietatik, onuradun bat izendatu zen, hemezortzi ordezeko, eta zortzi eskaera atzera bota ziren hainbat arrazoiengatik (deialdiaren xedearen barruan ez sartzea, deialdian eskatutako gutxienezko puntuazioa ez lortzea, destinatario ez izatea edo atzera egitea). Beka onuradunaren gaia da “El impacto de lo social en lo personal e íntimo: conocerlo, medirlo y transferirlo. Estudio de la contribución del movimiento asociativo al empoderamiento personal de las mujeres de la CAE”.

Hogei eskaera hartu ziren 2. motako beka lortzeko. Horietatik, onuradun bat aukeratu zen, hamar ordezeko, eta bederatzia eskaera atzera bota ziren hainbat arrazoiengatik (deialdiaren xedearen barruan ez sartzea, edo deialdian eskatutako gutxienezko puntuazioa ez lortzea). Beka onuradunaren gaia da “La triple discriminación de las mujeres cuidadoras inmigrantes”.

Hogeita sei eskaera hartu ziren 3. motako beka lortzeko. Horietatik, onuradun bat aukeratu zen, hogei ordezeko, eta bost eskaera atzera bota ziren hainbat arrazoiengatik (deialdiaren xedearen barruan ez sartzea, deialdian eskatutako gutxienezko puntuazioa ez lortzea, destinatario ez izatea edo atzera egitea). Beka onuradunaren gaia da “Berrikuntza Demokratiko Feministak”.

Bekak esleitzeko prozedura lehiaketa izan da, baremoari eta prozedurari buruz deialdian ezarritako irizpideen arabera.

Beka bakoitzaren iraupena hamar hilabetekoa da, deialdiaren ebazpena jakinarazten denetik aurrera. Ikerlanak entregatzeko epea aurten amaituko da, 2015eko apirilean edo maiatzean. Beka indarrean dagoen denboran bilera batzuk egin dira (2014ko urrian eta 2015eko urtarrilean) mota bakoitzeko beken onuradunekin, denbora horretan aurreratutako lanen kontrola, segimendua eta ebaluazioa egiteko. Epea amaitutakoan, ikerlan amaitua analizatu eta balioztatuko da, emaitzak eskuratuko dira eta baliagarritasuna eta gizarte-inpaktua neurtuko dira.

Aurreko urteko –2013ko– deialdian hiru motetako beketan egindako ikerlanen balorazioa 2014an amaitu da eta ikusi da bete dituztela deialdian planteatu ziren helburuak, eta lagundu dutela berdintasunaren bidean aurrera egiten mota bakoitzeko bekei dagokienez. Hauek izan ziren: - “Ekiten eta barneratzen: berrikuntza sozialetik abiatutako ekintzailetasun eredu berrien aukera eta oztopoak ” ikerlana,- “La ruta de la exclusión: discriminaciones múltiples en mujeres lesbianas (transexualidad, discapacidad, migración y edad) y repercusión en el acceso a los recursos socioculturales y económicos” ikerlana eta – “Estudio sobre la percepción del sexismo en la publicidad entre alumnado adolescente en la CAE” ikerlana.

Prestakuntza aldez aurretik erabakitako 10 hilabeteko epean egin zen eta bekadunentzat ekarri duen onura argi geratu da gero izan duten destinoa ikusita: batzuetan, bekaren babesean egindako ikerlana doktorego-tesia egiteko baliatuko da; beste batzuetan, antzeko beste ikerlan batzuen bidez jarraipena emateko eta, edozein kasutan, garapen profesionalean aurrera egiteko. Gainera, azterlan horiei zabalkundea eman zaie hainbat eremu eta euskarritan argitara emanaz: Emakunderen webgunean, kongresu eta jardunaldietan...; eta Dokumentazio Zentroan gordailutu dira jendearen esku egon daitezten aurrerantzean kontsultatzeko, ikerlan horietan aztertutako esparruetan.



1.- Izenburua

Enpresa eta erakunde pribatuentzako diru-laguntzak, aholkularitza-enpresa homologatu bat kontrata dezaten, emakume eta gizonen berdintasunari buruzko diagnostikoa eta berdintasun-plana egiteko.

2.- Araua

EBAZPENA, 2014ko uztailaren 4ekoa, Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeko zuzendariarena. Ebazpen horren bidez, Euskal Autonomia Erkidegoko enpresa eta erakunde pribatuei 2014. urtean diru-laguntzak emateko deialdia arautzen da, aholkularitza-enpresa homologatu bat kontrata dezaten, emakume eta gizonen arteko berdintasunari buruzko diagnostikoa eta berdintasun-plana egiteko.(EHAA, 137. zk., 2014ko uztailaren 21ekoa, astelehena).

3.- Diru-laguntza Programaren azalpen laburra eta helburuak

Enpresei eta erakunde pribatuei diru-laguntzak emateko programa bat da, aholkularitza-enpresa homologatu bat kontrata dezaten, enpresa edo erakunde pribatu horietan lan egiten duten emakumeen eta gizonen arteko berdintasunari buruzko diagnostiko bat eta berdintasun-plan bat egiteko laguntza teknikoa jasotzeko.

Programa honetako diru-hornidura ehun mila euro dira (100.000,00).

Programak enpresak inplikatu nahi ditu enpresa barruetara begira eta inguruarekin izaten dituzten harremanetan berdintasun-politikak ezar ditzaten. Zehazki, helburua da legez behartuta ez dauden enpresei laguntzea, berdintasun-diagnostiko eta -plan bat egiteko laguntza teknikoa emanez, eta enpresetan, gutxienez, berdintasunari buruzko sensibilizazio/prestakuntzarako hogeitau ordu eskainiz. Orobat, diru-laguntza jasotzen duten enpresek Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Erakunde Kolaboratzaile bihurtzeko konpromisoa sinatuko dute, hau da, enpresetan dauden desberdintasunak gutxitzeko jarduerak egitea etengabe, hala nola langileak kontratatzerakoan eta langileen sustapen eta prestakuntzan aukera-berdintasuna sustatzea, bizitza pertsonala, familiakoa eta lanekoa bateratzeko neurriak ezartzea, sexu-jazarpenari eta jazarpen sexistari aurrea hartzea, enpresaren produktuetan berdintasuna sartzea eta abar.

4.- Lortutako emaitzak, aurrekontu programarekin lotutako magnitudeak eta eragina gizartean

2014ko deialdiaren gauzatze- eta betetze-mailei buruzko ebaluazioa egin ondoren, ohar hauek egin nahi dira:

23 erakunde aurkeztu ziren, eta deialdiaren irizpideak aplikatu ondoren, 16ri eman zitzaizen diru-laguntza, punturik gehien lortu zutenei, alegia. 6 erakunde ordeko zerrendan geratu ziren,



aurrekontu-kreditua agortu zelako, eta bat baztertu egin zen, deialdiaren baldintzak betetzen ez zituelako. Zehazki, ABEE bat izategatik (aldi baterako enpresa-elkartea).

Diru-laguntza esleitu zitzairen erakundeen artetik 8 Gipuzkoakoak dira, 7 Bizkaikoak eta 1 Arabakoa. Jarduera-eremuari dagokionez, 2 eraikuntza-enpresa, gizarteratze eremuko bat, forma juridiko eta zerbitzu-emate askotako 4 zerbitzu-enpresa, tartean bi ingurumenaren arlokoak, center call bat eta igogailu-enpresa bat, eta gizarte-eremuko 9 erakunde pribatu lagundu dira diruz. Guztira, 210 gizonentzat eta 410 emakumerentzat izan dira onuragarriak erakunde horietako bakoitzean egindako diagnostikoak eta planak, bai eta milaka gehiagorentzat ere, zeharka.

Diruz lagundutako erakundeek jende askori ematen die zerbitzua, eta, batez ere emakumeei, gizarte-izaera handia duten erakundeak direlako guztiak. Arrazoi horregatik, pentsatzekoa da berdintasun-plan horiek martxan jartzeak are ondorio handiagoak izango dituela etorkizunean, bai eskaintako zerbitzuen kalitatean eta zerbitzu horietan lan egiten duten pertsonen lan-baldintzetan, bai gizonen eta emakumeen artean baliabide sozialak eta ekonomikoak eskuratzeko dauden desorekak murriztean.

Ordainketetan izan diren gorabeherai buruz, esan behar da erakunde bati ez zaiola ezer ordaindu ez duelako proiektua gauzatu, eta beste 4 kasutan hasieran esleitutako diru-kopurua murriztu da: bati gainfinantzaketa izan duelako, eta beste hiruri esleitutako kopurua baino gutxiago justifikatu dutelako.

Urte honetan ere, eraikuntza-enpresek jarraitu dute eskaerak egiten, AHT eta beste obra batzuetarako kontratazioetan berdintasunari buruzko klausulak sartu direlako. Kasu guztietan hauek hartu dira kontuan: berdintasunari buruzko diagnostikoa eta plana egiteko aurkeztutako proposamenaren kalitatea, planak zuzenean eragingo duen pertsona-kopurua, erakundeko pertsonen partaidetza-maila, jarduera-eremua, neurria, lurralde-ezarpena eta erakundeko langileen artean aniztasunak zer maila duen.

1.- Izenburua

Diru-laguntzak, 2014. urtean emakumeen aurkako indarkeriazko portaerei buruz sentsibilizatzeko eta/edo halakoak prebenitzeko jarduerak bultzatzen eta sustatzen dituzten erakunde, elkarte eta fundazioentzat.

2.- Araua

Ebazpena, 2014ko ekainaren 3koa, Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeko zuzendariarena, emakumeen aurkako indarkeria-portaerei buruzko sentsibilizazio- eta prebentzio-jarduerak bultzatzen eta sustatzen dituzten erakunde, elkarte eta fundazioei 2014an diru-laguntzak ematea arautzen eta iragartzen duena.

3.- Diru-laguntza Programaren azalpen laburra eta helburuak

Emakumeen aurkako indarkeriak giza eskubideak eta emakumeen funtsezko askatasunak urratzen ditu. Horrek galarazten du emakumeek gizartean osotasunez parte hartzea eta gizaki legez duten ahalmena gauzatzea.

Gizonen eta emakumeen arteko berdintasuna lortzeko eta emakumeen aurkako indarkeria errotik kentzeko, gizarte-portaera jakin batzuk aldatu behar dira, eta hori ez da gertatuko ez badira balioak, jarrerak eta usteak aldatzen. Ildo horretan, funtsezkoa da sentsibilizazio-, informazio- eta prestakuntza-ekintzekin jarraitzea, emakumeen aurkako indarkeria mota guztiak hobeto ikusarazteko eta hori emakumeek jasaten duten desberdintasun- eta diskriminazio-egoera abiapuntutzat hartuz azaldu ahal izateko, egoera horien guztien prebentzioa sustatuz. Xede horrekin, ezinbestekoa da erantzun integrala eta diziplina anitzekoa ematea emakumearen aurkako indarkeriaren aurrean; erantzun horretan, gizarte-eragile guztien jardunak bateratu behar dira, koordinatuta.

Ildo horretan, emakumeen aurkako indarkeriazko portaerez sentsibilizatzeko eta halakoak prebenitzeko abian jarritako programak, emakumeen aurkako indarkeriaren arloan, erakunde publikoek ez ezik, irabazi asmorik gabeko erakunde eta elkarteek ere gauzatzen dituzte. Hortaz, egoki da indarkeria horri buruz sentsibilizatzeko eta hura prebenitzeko proiektuak, programak, ekintzak edo estrategiak abiarazten dituzten erakundeak laguntzea.

2014ko deialdirako aurreikusitako helburuei dagokienez, hauek aipa daitezke:

1. Emakumeen aurkako indarkeria errotik kentzea.
2. Emakumeen eta gizonen artean dauden desberdintasunen egitura-kausak identifikatzea.
3. Emakumeen aurkako indarkeria eta haren magnitudea ikusaraztea.
4. Gizarteak emakumeen aurkako indarkeriarekiko duen tolerantzia gutxitzea.
5. Emakumeen aurkako indarkeriazko jokabideen oinarri diren balioak, sinesmenak eta jarrerak aldatzea.



6. Lanaren eremuan eta etxean emakumeei eta gizonei izendatzen zaizkien rolak aldatzea, rol horiek baitira gaurko gizartean nagusi den desberdintasun-egoeraren "haztegi".
7. Berdintasunaren aldeko jarrera proaktiboak sustatzea, bai helduen artean, bai haurren eta nerabeen artean.
8. Berdintasunaren aldeko hezkuntza hobetzea ikastetxeetan, hori baita sistemarik onena emakumeen aurkako indarkeria prebenitzeko.
9. Herritarrei informazioa ematea emakumeen aurkako indarkeriaren errealitateari eta mikromatxismoei buruz, desberdintasuna eta emakumeen aurkako indarkeria hasiera-hasieratik identifikatu ahal izateko.
10. Herritarrak sentsibilizatzea, emakumeen aurkako indarkeria-jokabideen larritasunari buruz eta gizartearen gaitz hori ikusarazteko premiari buruz.
11. Bizitza pertsonalean, gizartean, familian eta lanean (alor guztietan) berdintasuna — benetakoa eta eraginkorra— lor dadin sustatzea.
12. Emakumeen aurkako indarkeria errotik kentzen eta emakumeen eta gizonen artean berdintasuna lortzen gizarte-eragile guztiek parte har dezaten erdiestea.
13. Emakumeen autonomia sustatzea haien bizitzaren eremu guztietan.
14. Emakumeen posizio soziala eta ekonomikoa indartzea.
15. Indarkeriaren biktima diren emakumeak gizarteratu eta laneratu daitezten lortzea.

4.- Lortutako emaitzak, aurrekontu programarekin lotutako magnitudeak eta eragina gizartean.

Diru-laguntza hauetara, berrehun eta hogeita hamar mila euro bideratu dira (230.000 €). Deialdi honetan, murriztu egin da diruz lagundu beharreko gehienezko zenbatekoa: 12.000 euro izango dira; erakunde bakoitzari bi proiektu lagunduko zaizkio gehienez ere -betiere, proiektu horiek xede desberdina badute-, erakunde eta proiektu gehiagori aukera emateko.

2014. urtean, 68 proiektu aurkeztu dira, eta horietatik 38ri eman zaie diru-laguntza. Proiektuak Ebaluazio Batzordeak balioetsi ditu, deialdi honen helburuak eta aurreikusitako gizarte-eragina kontuan hartuta.

1.- Izenburua

Emakumeen aurkako indarkerian esku hartzeari buruzko unibertsitate-master ofiziala egiteko laguntza.

2.- Araua

EBAZPENA, 2014ko ekainaren 6koa, Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeko zuzendariarena, Emakumeen aurkako Indarkerian Esku Hartzeari buruzko Masterra egiteko laguntzetarako deialdia egiten duena.

3.- Diru-laguntza Programaren azalpen laburra eta helburuak

Emakumeen aurkako indarkeriak giza eskubideak eta emakumeen funtsezko askatasunak urratzen ditu. Horrek galarazten du emakumeek gizartean osotasunez parte hartzea eta gizaki legez duen ahalmena gauzatzea.

Deialdi honen bidez, laguntzak ematen dira 2014-2015 ikasturtean unibertsitate-master ofizial bat egiteko: Emakumeen aurkako Indarkerian Esku Hartzea; Deustuko Unibertsitateak ematen du, 60 ECTS-ko (europar kredituak) master-ofizial gisa ematen da, eta bost modulutan egituratuta dago.

Hamabost onuradun izango dira, gehienez ere. Onuradunak hamabost izanez gero, 2014-2015 ikasturtean matrikulak duen balioaren % 28 izango da diru-laguntza bakoitzaren zenbatekoa; mila zortzietan eta hemeretzi euro eta berrogeita lau zentimo (1.819,44) izango dira, gehienez ere.

Laguntzak eskatzeko, administrazio-auzotasuna Euskal Autonomia Erkidegoan izan behar da laguntza eskatu baino urtebete lehenagotik, eta onartua egon behar da Emakumeen aurkako Indarkerian Esku Hartzeari buruzko unibertsitate-master ofiziala egiteko.

Ezin dute deialdi honetan parte hartu emakume eta gizonen berdintasunari buruz 150 orduko edo gehiagoko prestakuntza jaso dutenek, administrazio publikoek finantzatuta.

Deialdia lehiaketa-prozeduraz ebatziko da. Ondorio horietarako, garaiz eta behar bezala aurkeztu diren eskabideak erkatuko dira, eta lehentasunaren arabera hurrenkeran jarriko dira, 10. artikuluan finkatutako esleipen-irizpideen arabera. Puntu gehien lortzen dituzten eskaerei baino ez zaizkie esleituko diru-laguntzak.

4.- Lortutako emaitzak, aurrekontu programarekin lotutako magnitudeak eta eragina gizartean.

2014. urtean, 9 eskabide aurkeztu dira, eta guztiei eman zaie diru-laguntza; 27.291,60 euro eman dira, guztira.

Garrantzitsua da espezialistak prestatzea emakumeen kontrako indarkeriaren arloan; izan ere, horrek eragin handia dauka sentsibilizazioan eta prebentzioan, bai eta indarkeriaren biktima direnei eman beharreko laguntzaren hobekuntzan ere. Beraz, diru-laguntza lerro honen erabilgarritasuna eztabaidatu ezinekoa da.

1.- Izenburua

Emakumeen elkartegintza eta emakumeek EAEko eremu guztietan parte har dezaten sustatzea.

2.- Araua

Ebazpena, 2013ko abenduaren 3koa, Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeko zuzendariarena.

3.- Diru-laguntza Programaren azalpen laburra eta helburuak

EAEko emakumeen eta gizonen berdintasunerako VI. Planaren esparruan 320.000 euro eman zitzaizkien emakumeen elkarte, federazio eta fundazioei, horiek zuzenean eragin dezaten euskal gizartean emakumeek duten partaidetzan eta horien sustapenean. Horrekin, nahitaezko zeregin bat egin zen, izan ere, gizartea sentsibilizatzea beharrezkoa da, Erakundearen funtsezko helburua lortu ahal izateko.

4.- Lortutako emaitzak, aurrekontu programarekin lotutako magnitudeak eta eragina gizartean

2014ko deialdian, 140 eskabide aurkeztu ziren, eta 127ri eman zitzaien diru-laguntza. Gainerako 13ak, ukatu egin ziren: 9, mistoak izategatik; 1, Euskadiko Elkarteei buruzko ekainaren 22ko 7/2007 Legearen aplikazio-eremuko ez izategatik, eta 3, deialdian eskatzen zen gutxienezko puntuazioa ez lortzeagatik (10. artikulua). Prozesua amaitu gabe dagoela, % 75 ordaindu da, 240.000 euro, eta, justifikazio-memoria aurkezteko epea 2015eko martxoaren 1ean amaitzen denez, emandako diru-laguntza guztia justifikatu ondoren ordainduko da gainerako % 25a (80.000 euro). Eskabidea aurkeztu zuten elkarteek 40.000 bazkide baino gehiago dituzte, gutxi gorabehera. EAEko emakumeen eta gizonen berdintasunerako VI. Planaren helburuak garatzen uzten duten jarduerak egiteko diru-laguntzak dira. Lortu dira aurreikusitako emaitzak, bai egindako programen kalitateari dagokionez, bai diru-laguntza horren onuradun direnen kolektiboari dagokionez. Gure balorazioaren arabera, bete da deialdi horretan aipatutako adierazlearen aurreikuspena. Izan ere, 100etik 140ra eskabide aurkeztea aurreikusten zen 2014rako memoria ekonomikoan, eta 140 eskabide jaso direla ikusi da.